

ERREPORTAJEA INAUTERIAK ARGAZKITAN GEHIGARRIA TXIKIBARREN
KULTURA "MARTXA A PANTXIKA" LEHIAKETA IRABAZI DU TXOMIN MUJIKAREN MUSIKA LANAK

BARRREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko martxoaren 7a/XI. urtea/437. zkia



Venezia ala Elgoibar?

"IRUDIMENA GOGOAN DAUKAGUNAZ BALIATZEKO GAITASUNA BAINO EZ DA"
(Pierre Bonnard)

D

Jiustondo, s.L.

EDARI BANATZAILEAK



3 et
kaxak r
bo titeta
estat i.en
ko



Errioxako David Moreno bodegak



- Errioxako ardoak
- Urteko ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Jumes Serra", "Faustino", "Martinez", "Juve Camps"...
- Orujoak
- Kontzerbak



San Roke, 32 - 34 (Instituto parean)

Tet. 943 74 09 92

40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO_RIZARRA



9 Euskal Jaiak

195 n. urtearen bueltan hasi ziren **klestremakoz** antolatzen Euskal Jaiak Elgoibarren. Garai hartan, Euskal Jaiak izaten ziren euskararekin eta euskal kulturarekin lotura zuten ekintza bakarrak, ez zegoen beste ezer. Inolako elkarte eta talderik ez zegoenez, herritarrek ziren Euskal Jaiak antolatzen zituztenak. Herritarren artean, Pako Juaristi nabarmendu behar dugu, bera izan zen Euskal Jaien arima eta motorra.

Hasierako urteetan, urtean bizpahiru euskal jai baino ez ziren antolatzen. Odeioan izaten ziren eta, batez ere, antzerkiak eta dantzak osatzen zituzten jaialdiak. Felixek akorduan dauka Bilbotik ekartzen zituztela taldeak.

Euskal Jaien gastuak sarreretatik ateratako diruarekin ordaintzen zuten. Odeioa bete egiten zen (1.000 lagun inguru) eta sarreraren erdia Odeioiko jabeak jasotzen bazuen ere, beste erdiarekin taldeei ordaintzeko beste izaten zuten. Propaganda handiren beharrik ez omen zuten izaten. Bi-hiru kartel ipini eta nahikoa izaten zen jendea enteratzeko.

Urteek aurrera egin ahala, Euskal Jaiak sarriago eta handiagoak antolatzen hasi ziren. Baina hasten denak amaiera izaten omen du, eta 76aren bueltan egin omen zen azken aldiz Euskal Jai Elgoibarren.

Bestalde, baziren kalean egiten ziren Euskal Jaiak. Kaleko euskal jaietan dantzariak eta txistulariak hartzen zuten parte. 64an egin zen estreinakoz Elgoibarren eta, data segururik ez badakigu ere, 80ko hamarkadaren erdi aldera arte iraun zutela uste dugu. Kaleko euskal jai hauetan, bi klase zeuden: bat, herriko dantzari eta txistulariekin bakarrik egiten zena eta, bestea, beste herrietako dantza taldeekin batera egiten zena.

Felix Etxebarria eta Imanol Larrañaga

iritzia



Emakumerik gabe ez da euskal herri berririk

Azken asteotako gertakari tamalgarriari errepasso egin nahian egunkariak hartu ditut, eta hara zerekin egin dudano topo:

Euskaldunon Egunkaria itxi, arduradunei 5 eguneko inkomunikazioa ezarri eta kartzelaratu dituen epaileak Luis du izena. Atxilotuak komisarian torturatu zituzten poliziak 30 urteko gizona zirela adierazi du M.Otamendik. Zeramatzen moztorra gustuko ez zutelako Bilboko 5 konpartsero atxilotu eta inauteri jaia hondatu zuten poliziak ere gizona zirela, eta III. Mundu Gerraren usainean dabilzan mandatariek ere, John, Tony eta Jose Maria izena dute.

Emakumeon parte hartze aktiboa duen gizartea hobea, justuagoa eta gizatiarragoa litzatekeela uste izan dut askotan, eta berdinagatik borrokatzen dutenek ere horrela uste dutela sinistu nahi dut. Hala eta guztiz, Egunkariako arduradun guztiak, Inma ezik, gizona zirela nabarmendu zait, eta baita astakeria honi erantzunez, martxoaren 13an mobilizaziorako deia egin duten sindikatu eta kultur erakundeetako bozeramale guztiak ere gizona zirela.

Gizarteko arauak gizonen neurria egindakoak dira, eta horren harira, ez naiz gobernu, polizia edota epaileen artean emakumeen presentzia zabalago batek ezer asko aldatuko zuenaren ustekoa. Euskal gizartea errotik aldatuko bada, herritarren eskutik izan beharko da: kolektibo eta kultur taldeetan lan egin behar dugu, gizartea aldatzeko eta eraberritzeko proiektuetan parte aktiboa izanik. Euskal Herri berria, tortura, polizia eta gerrarik gabe nahi badugu, eredia eta neurria aldatzea ezinbestekoa da, eta horretarako emakumeok, arlo publikoan, gure lekua eskuratu behar dugu.

Lorea Perez de Albeniz

KeXak	5
motz MOtZ	8
gehigarria	13
kiRolAk	20
aGenda	24

ALDERDI ETA ELKARTE LEGEAREN AURREAN

Denboraldi luzea da "Eskubide" Estatuak milaka pertsona legez kanpo uzten ikusten daramaguna. Ustezko demokrazia honetan, adierazpen askatasuna gogoz eta amorrus zapaltzen dute egunero. Euren ezarpenak onartzen ez dituen edo hitz egitearren burua ilunpetik ateratzen duena askatua izaten da salbuespenik gabe. Hainbat ilegalizazioen ostean (Segi, Gestoras...), prozesu hau gorenera heldu da Elkarte eta Alderdi Legearen onestearekin.

Ustez Batasuna desagertarazteko sortua, jesarpen operazioaren osteko turkoberu erraza, bere eragina epailearen esku geratuko da, "Sistema desorekatu" nahi duen edozein kolektibo akabatze baliatuz. Euren politikarekin bat ez datorren edozein alderditik, "interes nazionaleko" edozein egitasmo eztabaidatzen duen kolektibo ekologistatik txikienera arte... edonor.

Gaztetxe eta gazte asanbladetakako jende, egitasmo eta ideien aniztasunetik, kezkatuta ikusten dugu bizi garen salbuespen egoeraren urrats berri hau. Nolabait, gizarteak Lege hau onartuko du (horretarako baitaude hedabideak), eta beste kolektiboren bat ezerezatzeko erabiltzean, batzuen poltsikoen onerako gehienok geure bizkarrak zigortzen ditugun sistema mantentzen duen "giza bakea" zaintzeko izango omen baita, "indar errepresibo, hedabide, kapitala eta, azken batean, ejertzitoaren oinarrietan sakonki finkatutako giza bakea. Pasibitateari uko egin behar diogu, edonor izan baitaiteke hurrengoa. Estatuak deusezteko duen gaitasuna handia da, baina bere handiagotzea ekidin behar dugu oldartuz, pentsaera bakarraren kontra adierazpen askatasuna ikur hartuz, alienazioaren aurka elkartasuna bultzatuz, desinformazioaren aurrean kontrainformazioa sortuz, pasibitatearen kontra ekintzari eutsiz, autogestioa, eguneroko "utopiak"... Euren "askatasunaren" kontra, Askatasuna.

Elgoibarko Gazte Asanblada

ORAINDIK 'NUNCA MAIS'

Elgoibarko gazte bat naiz, akaso nire inguruarekiko beranduegi kontzientzia hartutakoa. Eta normalean hori da gazteekin gertatzen dena; ez zaigu gure inguruan gertatzen dena inporta adin batera ailegatu arte. Hortik aurrera mundu hobe nahi dugula pentsatzen dugu eta hau konpontzeko edozein taldetan parte hartzen dugu. Kasualitatea izan zen, baina justu kontzientzia hartzeko adin horretan tokatu zaigu Galizian gertatutakoa. 100 egun baino gehiago pasatu dira "Prestige" untzia hondorapenetik. Zenbaitek, nahiz eta oraindik gogoratu, ez diote ematen behar duen garrantzia, horretaz komunikabideak eta "gure" Gobernu espainiar inkopetentea arduratu baitira. ("Orain dela asko gertatu zen" pentsatuko dute). Baina gehienok, eta kontzientzia hartutako gazte askok, kontrakoa pentsatzen dugu: "100 egun pasatu dira... eta oraindik geratzen zaiguna". Horregatik, oraindik laguntza asko behar delako eta sinpleago, gertatu dena ahaztu ezin delako, Udaletxeari eskatzen diot, Gazte Informazio Gunearekin batera, Elgoibarko Galizia Elkartearekin batera eta zergatik ez, Debabarreneko Mankomunitatearekin batera, gazteentzat eta jendearentzat orokorrean, Galiziara boluntario gisa joateko autobusak antolatzea. Bitartean eta indar berdinarekin jarrai dezagun aldarrikatzen, "Inoiz ez", NUNCA MAIS.

U.S.S.

N.A.N. 44340765-P

Urruzunoren begi ezkutua

Inkisidoreak



Inauteriak zetozela-eta, inkisidore espainiarrek demokrata mozorroa jantzi zuten, azken finean urte osoan erabiltzen zuten berbera baitzen. Baina fanatiko horiei kareta erori eta benetako aurpegi faxista agerian gelditu zitzaizen euskaldunok euskarazko egunkari gabe utzi nahi izan gintuztenean. Gorrotoak eta nazionalismo espainiar eroak itsututako horiek albisteak euskaraz jasotzeko eskubidea kendu nahi ziguten indarrez. Guk, inauteri haiek ospatu genituen, baina euskaldunoi inposatutako espainiar eta frantziarraren mozorroa ez janzea erabaki genuen eta handik aurrera, denok batuta, gure neurrira egindako demokrazia eraikitzeari ekin genion, inkisidore faxisten erresumatik bananduta. Askatasunean.

Jon Eugi

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza,

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:

943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA UXUe Alherdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peñi UrigUell KOLABORATZAILERAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZARARRA Gotzon Garaterren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEOE GORDAILUASS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKMARRA

Elgoibarko Udalak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



kutxa

DANO BAT
LIA.111/13 XEPHAMIENTA

GOITI
GRUPO DANOBAT

PillkA

12111PIAM




- Eskerrik asko Pilar Ikastetxeari, Ostegun Gizen egunean antolatu zuten jaialdiarengatik, guraso guztien partez.



- Herriko gazte batek, inauterietako mozorro lehiaketan parte hartu zuen jendea txalotu nahi du: "Lehiaketa oso polita izan zen, eta giro bikaina jarri zuten parte hartzaileek. Jendeak mozorro ikusgarriak prestatu zituen, eta koreografiak ere oso landutakoak izan ziren".

- Gizonezko batek esan digunez, Melitongo errotonda egiteko, Lerungo industrialderako sarreran zeuden zuhaitz guztiak bota egin dituzte: "Eskahadora batek Lerungo industrialderako sarreran zeuden zuhaitzak puskatu eta bota egin ditu. Errotonda berria egiteko lekua behar da, baina badirudi bertan dauden pagoak ere bota egingo dituztela. Ahal bada pagoak osorik atera eta beste leku batean landatzeko eskatuko nieke".



- Gazte batzuk esan digutenez, Leku Ederreko komunak oso zikinak daude: "Jende asko ibiltzen da Leku Ederreko parkean, astean zehar, eta baita asteburuetan ere, eta komunak oso egoera kaskarrean daude. Oso zikinak egoten dira, eta sekulako usain txarra egoten da. Beste herri batzuetan jarri dituzten moduan, bakarrik garbitzen diren komunak jartzea izan daiteke irtenbidea".

Barrak, Birak eta Barreak



Pasatu dira 2003ko inauterlak eta ondo pasatu ere. Ostegun Gizen eta Ostiral Mehe pasa ostean, larunbatean Atxutxiamaikaren karaokea hasi zen giroa berotzen. Gaberdian Gurutze Gorriko Gazte-ek antolatutako Mozorro Lehiaketa hasi zen. 4 lagunek hartu zuten parte banakako lehiaketan eta 8 taide igo ziren Plaza Handiko eszenatokira. Plaza jendez gainezka egon zen eta bertan bildutakoek parre eta algara ugari egiteko c1111(e-r -lrsn eta mozorro xebleen kontura.

lehlakela



"King Afrika"
1. saria banaka



"Picha Brava"
2. saria banaka



"Tongo Song"
1. saria taldeka



"Aterpeko izarra"

2. saria taldeka




"90-60-90"

3. saria taldeka



"Ametsetan-amets"

Knreografiarik onena



9.996.977 euroko aurrekontua onartu du Udal Plenoak EAJ, EA, PSE-EE eta PPren baiezko botoekin

Batasunak Plenotik alde egin zuen alkateak mozio bat gai ordenean ez sartzeagatik

Joan zen otsailaren 27an egin zen Udal Plenoan, 2003. urteko aurrekontua onartu zen EAJ, EA, PSE-EE eta PPren botoekin. Aipatzekoa da, Guillermo Garatek bere legegaldian, lehenengo aldiz jaso duela PSE-EEren aldeko botoa. Batasunako zinegotziek, bestalde, alde egin zuten Pleno Aretotik, Gillermo Garate alkateak azaroan, presoan aldeko omenaldian izandako atxiloketen kontrako mozioa gai ordenean ez sartzeagatik.

EAJ eta EA alderdiek 9.996.977 euroko aurrekontua aurkeztu zuten, iazkoa baino %7 gehiago, Sarreraren atalean 4.433.000 euro bilduko dira transferentzia orokorretatik, 2.104.690 euro zerga zuzenetatik eta 600.000 euro zeharkako zergetatik. Gastuen atalean, ondasunen erosketak izango dira diru gehien suposatuko dutenak, 2.954.452 euro, hain zuzen ere, eta langileen gastuetan 2.435.012 euro gastatuko dira. Kirol Patronatuari dagokion aurrekontuak ere,



Otsailaren 27ko Udal Plenoko irudia.

Udal. Plenoan bildutako alderdien baiezko botoa jaso zuen. Kirol Patronatuak 674.886,17 euroko aurrekontua izango du 2003. urtean.

Guillermo Garateren agurra
Udal Plenoaren amaieran, Guillermo Garatek alkatetzeta postuari uko egin zion.

Gainontzeko alderdiek arazorik gabe onartu zuten alkatearen agurra, baina Pleno Aretotan bildu ziren hainbat pertsonak garrasi eta protesta oihuen artean agurtu zuten Guillermo Garate. Zentsura mozioa gai ordenetik kendu izana leporatu zioten, eta Ertzantzak elgoibartar presoan omenaldian izandako jarrera salatuz.

Apirilaren 6an, domekan, 13:00ak inguruan pasatuko da Korrika 13 Elgoibartik



"AEKrekin herri bat geroa lantzen" lelopean, datorren apirilaren 6an pasatuko da Korrika Elgoibartik. Ordua erabat zehaztuta ez dagoen arren, eguerdiko ordu bata alderako iritsiko dela espero da. Ibilbidea aurreko edizioko berbera da. Azkoitia aldetik etorriko da, eta elgoibartarrek Azkaraten hartuko dute lekukoa, ondoren Eibar aldera abiatzeko. Korrika 13, apirilaren 4an hasiko da Maulen, eta 2.100 km. arrapaladan igaro ondoren, apirilaren 13an Irurien bukatuko da.

Korrikaren helburua euskararen aldeko kontzientzia suspertu eta gau eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea da. Joan zen otsailaren 27an egin zen Korrika

13ren aurkezpenean, AEK egoera ekonomiko larrian dagoela azaldu zuten, eta elgoibartar guztien partaidetza eskatu zuten. Kilometroak 300 euro balio ditu aurten. Korrika materiala eta lasterka egiteko petoak salgai daude dagoeneko, eta herrian egingo den diru biketan eta Korrika egunean korrika egiteko gonbitea luzatu zuten. Bestalde, Korrika Kulturalaren aurkezpena ere, egin zuten. Elgoibarko Udalarekin batera, hainbat kultura ekitaldi antolatu ditu AEKk. Martxoaren 14an, Roman Polanskiren "piano jolea" filma eskainiko dute Herriko Antzokian, eta martxoaren 28an, Mikel Markez eta Pako Aristiren emanaldia izango da Musika Eskolako auditorioan.

Haurren artean irakurketa suspertzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Udal Liburutegiak

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, etxeko txikienek liburutegirako bidea ikas dezaten, hainbat ekitaldi antolatu ditu Udal Liburutegiak. Txikiteka eskolaurreko umeei zuzenduta dago, eta bere helburua, umeak liburutegiarekin hantemanetan jartzea da. Joan zen otsailaren 27an izan zen lehenengo saioa. Hasieran oso jende gutxi agertu bazen ere, azkenean 50 ume inguru bildu ziren. Animalien gaia landu zuten, eta liburutegira hurbildu ziren gaztetxoek diploma bana jasoko dute. Hurrengo saioa martxoaren 27an izango da, eta oraingoan, ipuin kontalari bat ekarriko dute.



"Aspargi" Gipuzkoako Parkinson Elkarteak Debabarreneko gaixoentzat lokala irekiko du Eibarren

Datorren apirilaren 11n, Parkinson Gaixotasunaren Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, Debabarreneko parkinson gaixoentzako lokal berria inauguratuko da Eibarren. Zerbitzua gainontzeko herrialdeetara zabaldu arte, Eibarko Ipurua Kiroldegian kokatuko den lokal berri honetan emango zaie arreta Debabarreneko parkinson gaixoei. "Aspargi" Elkarteak boluntarioen helburua, parkinson gaixoei eta beren senideei laguntzea da. Interesatuak Jesus Astigarraga eibartarrarengana jo dezakete (615 364 371) edo Eibarko Udaletxeko Zerbitzu Sozialen departamentura (943 70 71 54).

Urruzuno auzoko babes ofizialeko etxeetako giltzak martxoan banatuko dira

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Departamentutik jakinarazi dutenez, Urruzunoko etxeak bizitzera sartzeko moduan daude dagoeneko, eta martxoan zehar banatuko dira giltzak. Etxe hauen alokairuko prezioa, bizilagun bakoitzaren errentaren eta etxebizitzaren neurriaren arabera izango da. Aipatu beharra dago bestalde, ingurune honetan beste 120 babes ofizialeko etxebizitza eraikitzeko obrak hasi direla dagoeneko. OHL-Morkaitz enpresak dira obra honen arduradunak, eta printzipioz, bi urteko epean amaitzea espero dute.

Uxue Alberdi izango da Barren-eko gehigarrien arduraduna

Uxue Alberdi Kazetaritzako ikaslea izango da martxotik aurrera Barren-eko gehigarrien arduraduna. Hilean lau gehigarri berezi kaleratzen ditu Barren-eko: Txikibarren, gazte gehigarria, elkarrizketa sakona eta Kilibarren. Uxue Alberdik bertsolaritza eta literatura alorrean sari asko irabazi ditu, eta aurrerantzean kazetari lanetan arituko da.



Merkatu Plazako dendariak 60 euroko 4 sari banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Mari Karmen Elorza, Maria Uriarte, Gabriela Garian eta Lourdes Agirre izan dira irabazleak. Saria eresketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, bi afari zozketatuko dira.



Ernakume langileek gizonetako baino %32 gutxiago kobratzen dute Euskadin antzerako lanetan, CCOO sindikatuaren esanetan

ZER IRUDITZEN ZAIZU EMAKUMEEN LANA GIZONEDIMENA BAINO GUTXIAGO ORDAINTEA?



JAVIER ARRIZABALAGA

42 urte, artezlaria

Gaizki. Lan berdina einda, gizonetako moduan kobratu behar lukete. Emakumeak lanian hasteko zailtasun gehiago daukate, eta gauza asko lortu behar dituzte ondoren.

ARSENIO NABAS

52 urte, metalurgikoa

Gaizki, lan bera eginez, soldata bera jaso behar lukete emakumeek. Oraindik mundua gizonetakoena da, eta aspektu askotan emakumearen lana ez da behar beste baloratzen.



BEGOÑA MENDIZABAL


57 urte, etxeandrea

Lan berdina einda, ez da horretarako eskubiderik. Gaizki da, baina beste irtenbiderik ez daukan artian. onartu egin behar. Martxuan 8xan protestatu egin behar da, emakumeen lana baloratzeko.

ANGELES MARTINEZ

20 urte, ostalaria

Ez da normala, baina onartzen ez badugu, ez digute lanik ematen. Egungo bizitzan, bikote batek ezin du soldata bakararekin aurrera egin. Emakumeek isildu eta eskaintakoa onartzera behartuta gaude.



AMAGOIA MONASTERIO

41 urte, administraria

Oso gaizki iruditzen jata, ulertezina da. Martxuan 8xan protesta egin ez da ezertarako balixo, urteko 365 egunetan egin behar da. Emakume Langileen Egundian, gauza gutxi daukagu ospatzeko.

ROMAN SANCHEZ

31 urte, funtzionarioa

Gaizki iruditzen zait. Emakumeek gehiago protestatu behar dute. Gobernuak eta Jaurerriak emakumeen protesta entzun behar dute. Gauzak aldatzeko borrokatu egin behar da.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
 San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurak S.L.
 Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
 Juan Mugerza, 3 tr 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



2003ko urrian amaituko du IMHk "Virtool" proiektua



"Virtool" proiektua IST (Information Society Technologies) europar ekimenaren barruan kokatzen da, eta bere helburu **nagusia mekanizazio** prozesuetarako ikaskuntza ingurune berriak diseinatu eta garatzea da.

Horretarako, 3D sisteman egindako grafikoak eta errealtate birtualeko teknikak erabili dira. IMHk 2001eko apirilean eman zion hasiera proiektuari, Europako beste hainbat herrialderekin batera. Frantzia, Italia, Alemania eta

Espainiako hainbat enpresa eta ikastetxe daude proiektu honen barnean, eta bakoitzak **bere ezagutza eta** esperientziaren araberako ekarpena egiten dio "Virtool" proiektuari. IMHk 2003ko urrian amaituko du proiektua.

Danimarkako 13 ikasle izan dira Elgoibarren



Danimarkako Horsens herriko 13 ikasle izan ziren Elgoibarren otsailaren 14tik 21era. Administrazioa eta Merkataritza Zikloko ikasleak ziren guztiak. Joan zen urteko azaroan Elgoibarko ikasleak izan ziren bertan, eta oraingoan, danimarkarrak pasatu dute astebete Elgoibarren. Euskal Herrian turismoa egiteaz gain, bertako egoeraren berri eman diete irakasleek. Egoera politikoa, kulturala, eta Euskaldunon Egunkariaren itxiera ere, bizi izan dute. Ikasle gazteak eta kirolzaleak ziren gehienak, eta Realeko jokalaria ezagutu nahi zituzten. Zubietara joan ziren talde txuri-urdinaren entrenamendua ikustera, eta Mikel Aranburu eta Sander Westerveld jokalariek prentsaurrekoa eskaini zieten. Euskaraz eta ingelesez hitz egin zuten, eta esan digutenez, oso ondo pasatu zuten.

Ikastolako ikasleak Miramongo Kutxaespazioan izan ziren

Elgoibar Ikastolako DBH leko ikasleak Miramongo Kutxaespazioan izan ziren. Gelan landutako hainbat gauza ikusi ahal izan zituzten Planetarium-ean, eta modu esperimentalean Natur Zientzietako zenbait gai frogatzeko aukera ere, izan zuten. Esan digutenez, egun zoragarria pasatu zuten.



OTSAILA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.

JAIOTAKOAK



Naiara Herrero
Morilla
Otsailak 2
Vicente eta Arrate



Nagore San
Andres Zabala
Otsailak 15
Javier eta Bittori



Nora Sota
Coronado
Otsailak 6
Javier eta Yolanda



Naroa Gil Torres
Otsailak 14
Imanol eta Maite



Maddi Zabala
Elizburu
Otsailak 17
Iagoba eta Arantxa

HILDAKOAK

Valerio Esnaola Larreategi,
68 urte, otsailak 4

Maria Pinilla,
76 urte, otsailak 7

Dorotea Arriola,
76 urte, otsailak 10

Javier Arriola Lizarralde,
68 urte, otsailak 13

Arturo Sueiro,
68 urte, otsailak 20

Jose Aramberri,
89 urte, otsailak 20

Bitxori Mugica Iturzaeta,
91 urte, otsailak 23

Jose Mari Oñederra,
49 urte, otsailak 22

Simon Garate Olañeta,
80 urte, otsailak 27

EZKONTZAK


Luis-Maria Zubiaurre eta
Maria-Jose Gorostiza
Otsailak 14

7ErXEETRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK • TRASLADOAK • KOROAK



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

EH -a1111e

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 1. gehigarria

GAIIIIIIIIIIIIIIIIIII MII1111114•11111111•11111 M4141111111111111141\$

Arraldeko medikuaren semea, Goenkaleko Aitor, iiatetik Euskal Herriko haur guztien arratsalde pasarako lagun bilakatu da mutil guapo hau. Baina ez gara aurkezpen lanetan luzatuko, bera aurkezlea den aldetik, esan diezagula:

Iban Garate
"Betizij"-ko aurkezlea

Nor da Iban Garate?

20 urteko azkoitiar peto petoa, Iruñean Ikusentzunezko komunikazioa ikasten ari dena.

Nolatan hasi zinen telebista munduan?

Beste lagun batzuekin batera Xabier Munibe ikastolako antzerki eskolan nennilen garaian, 13 urte nituela, ETBn casting bat egin behar zutela esan ziguten eta neska-mutil koadrila batek joatea erabaki genuen. Nire lehengo castig-a 14 urterekin egin nuen baina ez ninduten hartu. Urte bat beranduago, 15ekin, Goenkaleko casting-a pasa nuen eta harrezkero hemen nabil.

Zer behar da aurkezle izateko? Guapoa izateak laguntzen al du?

Euskal Telebistan ez dut uste guapoa izateak hainbeste inporta duenik, kanpoan bai, hori hala da. Euskal telebistan


euskaraz egiten den saio bat aurkezteko garrantzitsuena horixe bera da, euskaraz ondo egitea.

Laguntzen al du ezaguna izateak ligatzeko orduan?

Nik erakarri beharrean uxatu egiten ditut, beraz, ez dut uste.

Zer nahiago duzu, aurkezle ala aktore lanetan aritzea?

Oso ezberdina da batean edo bestean aritzea. Aktore lana oso lotua eta planeatua da, gidoia jarraitu behar duzu, zuk esandakoak zure aurretik eta atzetik hitz egin behar dutenak baldintzatzen baititu, emandako testua interpretatu behar duzu muga horietatik irten gabe. Aurkezlearena oso bestelako lana da, inprobisatu egin dezakezu eta ez duzu beste bat izan beharrik. Ni lehen Goenkaleko Aitor nintzen eta orain Iban Garate naiz. Baina bi lanak ditut gustuko, egia esan.



OTX-MOT

Bertute hat: hitanua jakitia
Akats hat: formalegixe naizela
lete zaizun amets bat: zuzeneko saio bat aurkeztie
Egusentla ala Hunaharra? i lunabarra
Idela ala ekintia? ekintza
Nor miresten duzu? arreba
Zerk lotsatzen zaitu? Askotan, jende aurrien eotik
Gorputzeko atalik gustukoena? belarrixek
Bidata bat, nora? Realak champions irabaziko baleu, hara
Zer dute haurrek helduek ez dutenik? Freskurie
Pelikula bat: Matrix
lihuru hat: 100 metro

Hil eta gerel Jal
leku bat: Axkoiti
Gainean ala azplan? Gutxi pixatzet ta bazpane gainian
Txildtake biburrikerla bat balkoitik izotz koskorak botatzie
Nori emango zenioke gustura belarrondoko bat? Nire ianbidiak ez titt uzten horri erantzuten...
Botila erdi hutsa ala erdi hetea? Betia beti
Zer ikusten duzu ispiluan hegiratzean? Peka mordo bat
Zer nahiago duzu beste irakastea edo besteengandik irakastea? ikastie
Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? Maitasi ina sexunk labe

"Zuzeneko saio bat aurkeztea zen nire ametsa"

L_LJ

OG
L_LI

Chc

L_LJ

OG

LAZKANO

LEHEN HEZKUNTZA, 3. MAILA

**1 Zer nahiago duzu, ikastea ala irakastea?**

Irakastea, dudarik gabe

2 Zenbat urterekin eman zenuen lehenengo muxua?

15ekin

Eta lehenengo parranda noiz?

13 edo 14rekin

Gustatzen zaizun pertsona konkistatzeko zer esango zenioke?

Bere izaerari buruzko gauza politen bat

Inoiz txuletarik egin al duzu?

Bai

Aprobatzeko formula?

Azkarra, azeria izatia

Maiteminduta al zaude?

Bai

Inoiz gertatu zaizun anekdota xelebreena?

Klasian egonda aulkitik jaustea

Bizitza hontan jakin beharreko lekzio garrantzitsuena esango didazu?

Alai bizitzia, bestela dana alperrik da

NOLAKO ENBORRA... HALAKO EZPALA



MARITKUEGAÑA
ama

- 1 Gerrari
- 2 Jende askon aurrion hitz egitiak
- 3 Egun polit bat ikustiak
- 4 Injustizia
- 5 Hiltzen naizen arte ondo bizi izatia
- 6 Nire alaba izatia
- 1 Genixo oso txarra dakala
- 8 Maite detela

1. Zeri diozu beldurra?
2. Zerk lotsatzen zaitu?
3. Zerk egiten zaitu zoriontsu?
4. Zer aldatuko zenuke munduan?
5. Desio bat
6. Zer da zure ama/alabaz gehien gustatzen zaizuna.
7. Eta gutxien?
8. Baduzu zerbait amari/alabari esateko?



HAIZEA AMBITA
alaba

- Ametz txarrei 1
- Amatxo peluka horrekin ikustiak 2
- Erregaluek 3
- Ahizpak ez zirikatzia 4
- Parisera jutia 5
- Gauero ipuinak kontatzen dizkiala 6
- Genixo txarra dakala 1
- Maite detela 8

Txiki inkes1-0

Zer da desioa?

9 urte Bidane Gonzalez

Zure ametsa.



10 urte Leire Arrillaga

Asko gustatzen zaizun zerbait lortu nahi izatea.



11 urte Asier Izagirre

Nahi duzun zerbait egia bihurtzea.



11 urte Asier Badiola

Bakoitzak bere barnean duen amets liluragarri bat.



Zer iruditzen zaizu Egunkaria betea?

Lore Mendizabal 8 urte

Niretzat oso gaizki egin dute. Nire aitak egunero erosten zuen eta nik Egunkariko Xingola irakurtzen nuen.



Iosu Atxa 9 urte

Injustizia latza. Ez dagoela demokraziarik.



Nora Anton 10 urte

Gaizki, euskerazko egunkari bakarra zelako.



Mikel Iñiguez 11 urte

Oso gaizki iruditu zait, euskaldunok ere gure egunkaria behar dugulako.





Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 7 Yudego
- 8 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 9 Zabaleta
- 10 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 11 Ibañez
- 12 Bidasolo
- 13 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 14 Fernandez

GAUEZ

- Yudego
- Zabaleta
- Zabaleta
- Etxeberria
- Ibañez
- Bidasolo
- Etxeberria
- Fernandez

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZA13ALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

9 **igandea** Fotero

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anomnaak	943 74 03 85
D YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbaleak.	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kontroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

deitu **943 30 35 55 / 943 30 35 54**
635733389 / 635733388

telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

www.eguneroinfo/harpidetza

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Dirulaguntzak: 3035 0092 56 0920055559

N -ruzirT

Letz Zep talde britainiarrak kontzertua eskainiko du bihar, martxoaren 8an, Gaztetxean

Led Zeppelinen musika, janzkera eta jarrera berdina dute taula gainean

Letz Zep historian egon den musika talde esanguratsuenetariko bati, Led Zeppelini, justizia egiten dion taldea da. Ez dira miresten duten taldea imitatu eta abestiak jotzera bakarrik mugatzen. Jarraitzaile sutsuek osatutako taldea da eta benetakoen espiritua publikoari helarazten saiatzen dira. Zapatu honetan, martxoaren 8an, kontzertua eskainiko dute Gaztetxean 23:00etan. Ez da Elgoibar bisitatzen duten lehen aldia, duela pare bat urte ere Gaztetxean jo baitzuten. Domekan jo zuten eta bertan bildu zen jendea oso gustura geratu zen entzun eta ikusitakoarekin.

Antz handia

Taldeko abeslariak (Billy Kilke) Robert Plant-en antz handia dauka eta



Gaueko 23:00etan hasiko da Letz Zep taldearen kontzertua.


Ozzy Osbourne eta Roger Daltrey musikariekin egin ditu birak. Chris Cawte gitarra jolea, berriz, oso musikari ezaguna da Ingalaterran, eta besteak beste, Rod

Stewart, Ronnie Wood eta Doctor Feelgood-ekin jo du. 60 eta 70. hamarkadetako musika, janzkera eta orrazkerak darabiltzate eta ia bi ordutako emanaldiak eskaintzen dituzte, Led Zeppelinen kantuen aukeraketa aproposa eginez. Jimmi Pagek eta Robert Plantek, Led Zeppelineko benetako kideek, begi onez ikusten dute Letz Zep. Robert Plant izana da kontzertu batean eta taula gainean bere burua ikustea modukoa izan zela aitortu zuen. "Immigrant song", "Since I've been love you" edo "Starway to heaven" moduko abesti mitikoak zuzenean entzuteko aukera aparta, beraz.

Abeslariak Plant-en ahots erregistroetara iristeko zailtasunak ditu, baina Led Zeppelineko abeslariak berak ere zailtasunak zituen zuzeneko emanaldietan grabazio estudioetan lortzen zituen ahots doinu sinestezinak lortzeko.

Eibarko "Martxa a Pantxika" musika lehiaketa irabazi du Txomin Mujikak

Jendeak emandako botoen bidez erabaki zen irabazlea



ibarko jai egun edo ospakizunetan **Eibar** hartzen duen Udalaren astoa da Pantxika. Olentzerorekin, Errege kabalgatan, edo beste hainbat jaiegunetan astoa alokatu eta kalera ateratzen zuten. Duela urte batzuk astoa erosi zuen Eibarko Udalak eta abenduan astoaren omenezko ereserki lehiaketaren baseak kaleratu zituen. 9 konposatzailek aurkeztu zituzten lanak. Musika munduko profesionalak 6 onenak aukeratu zituzten finalera pasatzeko eta Eibarko Udal Musika Bandak jendaurrean jo zituen pasa den domekan, martxoaren 2an, Astelehena frontoian. Jendeak aukeratu zuen boto bidez ereserki onena eta Txomin Mujikak

konposatutako martxa aukeratu zuten.

Elgoibarko Musika Bandako zuzendariordearen lanak estimazio handia izan zuen eta 142 aldeko boto jaso zituen (232 lagunek eman zuten botoa). Eibarko Udal Musika Bandako kide den Carlos Sanchezek lortu zuen bigarren postua 26 boturekin. Juan Carlos Irizar sailkatu zen hirugarren 24 boturi esker. Txominek oso pozik jaso duela 1.200 eurotako saria aipatu digu, "piezia idazterakuan asto bati eskainia zala euki naban goguan eta jendiari asko gustau jakuen efektu batzuk sartu nitxun". San Juan bezperako danborradan joko dute Txomin Mujikak Pantxika astoaren omenez sortutako martxa.



KRISTINA MATAS

HAIZEA EMAKUME TALDEAK antolatutako erakusketaren egilea

"Gai eta teknik artistiko desbercinak lantzea custatzen zait"

Bihar, martxoak 8, Emakume Langilearen Nazioarteko eguna dela-eta, Elgoibarko Haizea Emakume Taldeak ekitaldi desberdinak antolatu ditu. Besteak beste, Cristina Matasen erakusketa inauguratuko da gaur, martxoak 7, Kultur Etxean. Cristina Matas Donostian bizi da, baina familia elgoibartarra dauka, eta berak azaldu digunez, ilusio handia egiten zion Elgoibarren erakusketa antolatzeak. Beraz, Haizea Emakume Taldearen gonbidapena jaso zuen momentuan bertan hasi zen erakusketa prestatzen. Erakusketa martxoaren 7tik 23ra bitartean egongo da ikusgai Kultur Etxean. Bisita orduak, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, eta jai egunetan, goizeko 12:00etatik 14:00etara izango dira.

• Zer ikusiko dugu erakusketan?

Denetarik jarriko dut. Oleozko lanak, litografia, serigrafia, akuarela eta argazkiak ere, jarriko ditut. Gai desberdinak eta teknika desberdinak erakutsiko ditut. Azken hiru edo lau urteotan eginiko lanak izango dira.

• Nola prestatzen da erakusketa bat?

Oso zaila da, eta sekulako lana dauka. Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gela oso handia da, eta hori dena betetzea ez da erraza. Lanak ondo aukeratu behar dira, ezin da edozer gauza hartu eta erakusketan ipini. Iaz ere deitu zidaten, baina ez zidan erakusketa prestatzeko astirik eman. Erakusketa bat ondo prestatzeko, bi urte behar dira gutxienez, lanak egin eta aukeratzeko. Ikusleak hamar minututan ikusten du erakusketa, eta ez da konturatzen horren atzean dagoen lan guztiaz.

• Zein teknika lantzen dituzu?

Denetarik egiten dut. Urte asko daramatzat artearen munduan lanean, eta gai eta teknika desberdinak lantzen ditut. Litografia eta serigrafia paper gainean egiten dira, makina berezi batzuekin. Oleozko koadroak, ordea, pintzelarekin eskuz marrazten ditut. Argazkilaritzari dagokionez, nik atera bakarrik egiten ditut; errebelazioa dendan egiten didate.

• Nola ateratzen da argazki on bat?

Argazki bakoitzak momentu berezi bat dauka, eta momentu hori harrapatu behar da. Kamara beti gainean eramaten dut, eta zerbait interesgarria ikusten dudanean, argazkia ateratzen dut. Erakusketan bost argazki jarriko ditut. Oporretan ateratakoak dira denak, batzuk Turkian eta beste batzuk Santanderren.

• Zer transmititzen duzu zure lanekin?

Isilean eginiko lana. Ikusleak bere imaginazioa eta ikuspuntua edukitzea gustatzen zait.

• Zein motatako koadroak marrazten dituzu?

Gai desberdinak lantzen ditut. Azken urteotan itsasoa landu dut, baina naturari buruzko lanak ere, egin izan ditut. Gehienak paisaiak dira, baina lan abstraktuak ere egiten ditut. Kolore ugari erabiltzea gustatzen zait.

• Nola inspiratzen zara lanak egiteko?

Picassok esaten zuen moduan, inspirazioa lana da. Jarri eta lan eginez lortzen da inspirazioa. Motibatzen zaituen gai bat aukeratu, eta lan egitea da sekretua.

• Nola sartu zinen artearen munduan?

Txikitatik gustatu izan zait marraztea. Margolari izaera barruan daramat, margolaria jaio egiten da, ezin da egun batetik bestera margolari bihurtu. Arte Ederren ikasketak egin nituen, eta orain pinturako klaseak ematen ditut. Pinturarekin bizitzea oso zaila da. Irakaskuntzatik bizi naiz, eta nire denbora librean marrazten ditut.

"Erakusketa bat ondo antolatzeko bi urte inguru behar dira"



Der Deta n

"Zscika izena dut eta hungariarra naiz. Elgoibarko Institutuan alemaneko irakaslea izan naiz bost hilabetetan zehar. Denbora honetan euskarazko klaseak jaso ditut eta honek lagundu dit Euskal Herriko kultura eta jendea ezagutzen. Oso gustura sentitu naiz". Horrela aurkeztu digu bere burua, euskara hutsez, Zsoka Tokai (24 urtel neska hungariarrak. Institutuan alemaniera irakatsi eta Hungariari buruzko hainbat gauza azaltzeaz gain, Udal Euskaltegian egunero ordu pare bat egin ditu eta ikasi, askok beraien bizitza osoan baino gehiago, ikasi du euskaraz.



"Euskara eta rragiarraren arteko antzekotasunak ikertzea gustatuko litzaicake"

• Nolatan etorri zara Euskal Herrira?

Hungariako hegoaldean bizi naiz. Gyula izeneko 35.000 biztanle dituen hirian. Europar komunitateko herrialde batera joateko aukera nuen eta oso gustuko ditut hizkuntzak, batez ere, Finlandiako Suomia edo euskara moduko hizkuntzek erakartzen naute.

• Zer ari zara ikasten?

Germanistica eta Hispanistica ikasten ditut unibertsitatean. Azken hau ikasten ari nintzela hasi nintzen euskal kultura eta hizkuntza ikasten. Informazio gehiago izateko eta ilustratzeko etorri nintzen Euskadira.

• Zer zenekien aurrez Euskal Herriari buruz?

Euskara eta nire ama hizkuntzaren, magiarraren, artean antzekotasunak zeudela. Udal euskaltegian hasi nintzen euskara ikasten. Zaila da, baina poliki-poliki ikasi daiteke, magiarra ere ez da erraza. Hungarian ikasketekin jarraitzea gustatuko litzaidake eta bi hizkuntzen arteko antzekotasunak ikertu.

• Zer antzekotasun dituzte magiarrak eta euskarak?

Hiztegi aldetik *Gabon* hitzak garia esan nahi du magiarrez eta *hamar* hitzak, berriz, segituan. Gramatikari dagokionez, mahaian, atean, leihoan... bukaerak berdinak dira, besteak beste.

• Zein hizkuntza hitz egin edo menperatzen dituzu?

Magiarra, alemana, ingelesa, gaztelera eta euskara pixka bat. Asko gustatzen zait ikatea.

• Zenbat jendek hitz egiten du hungariera?

Hungariak 10 milioi biztanle ditu ofizialki, baina 15 milioi gairela esatea gustatzen zaigu. Lehen Mundu Gerra ostean tarta bat bailitzan banatu zuten Hungaria inguruko lurraldeen artean. Gaur egun hungariar asko bizi dira Austrian, Errumanian, Eslovakian...

• Zerk deitu dizu atentzioa Euskal Herrian?

Bakarrik etorri nintzen, baina inoiz ez naiz bakarrik egon. Lagun berriek eta Institutuko ikasleek asko erraztu zidaten integratzea. Bestalde, lautadan bizi naiz eta hemengo mendi berde eta itsasertzeko herritxoak; Deba, Mutriku... izugarri gustatu zaizkit.

■ Zer egin duzu Institutuan?

Alemana irakatsi dut DBH eta Batxilergoan. Alemanaz gain nire herrialdearen inguruko informazioa eman diet, historia, geografia eta kultura orokorrean.

• Zer da zure herrialdetik azpimarratuko zenukeena?

Artea, musika edo literatura datorkio burura jendeari Hungarian pentsatzean, eta ez boligrafoa, pospuloak, c bitamina, ordenagailuaren monitorea, autoaren karburadorea edo antzerako gauza sinpleak. Hauek denak hungariar asmakuntzak dira. Zientzia eta teknologi arloan herrialde indartsua da. 13 nobel sari hungariarrak izan dira alor ezberdinetan: fisika, kimika, medikuntza, ekonomia, pakea... Itsasora irteerarik izan ez arren, ur termalen herrialdea ere bada. 3500 iturri aurkitu dituzte oraingoz.

"Boligrafoa, pospuloak eta ordenagailuaren monitorea hungariar asmakuntzak dira"

O
1--

O
Cr)
1 1

C.D. Elgoibar nesken futbol taldea Gipuzkoako Kopa jokatzeko hasiko da asteburu honetan

Seigarren postuan amaitu dute liga txapelketa

Liga seigarren postuan amaitu ostean Gipuzkoako Kopa Txapelketa hasiko dira jokatzeko Elgoibar futbol taldeko neskek zapatu honetan Mintxetan. Ligan 20 partidu jokatu dituzte eta uste edo nahi baino okerago joan zaizkie gauzak, aurreko urteetan partidu asko irabaztera ohitua zegoen taldea baitzen. Guztira, 8 partidu irabazi, 3 berdindu eta

9 galdu dituzte. Goleatzaile onena Irene Elorza izan da. Ligako lehen bi sailkatuek iguera fasea jokatu dute eta gainontzekoek kopan neurtuko dituzte indarrak. Elgoibartarrak zortzi talderen aurka arituko dira partidu bakarrera jokatu den lehen



fasean. Lehen partidua etxean tokatu zaie zozketa bidez eta zapatu honetan, martxoaren 8an, jokatu dute 18:30etatik aurrera Mintxetan. Aretxabaletako Almen taldea izango dute aurrez aurre eta jendea animatzera joateko deialdia zabaltzeko eskatu digute.

Martxoaren 21ean hasiko da 32. Elgoibarko Xake Txapelketa

Elgoibarko Xake Txapelketa martxoaren 21, 22, 28, 29 eta 30ean jokatu da. Txapelketaren 32. edizioak honako ordutegiak izango ditu: Ostiralean, 21:00etatik 22:30etara eta zapatutan 16:00etatik 19:00etara. 30 minutuko "finish" erako partidak izango dira, suitzar estiloan jokatu 7 partida. Infantil, gaztetxo eta nagusiei

zuzendutako txapelketa izango da eta partidak Juan Mugerza kalean (Pista Beltza) jokatu dira. Izena emateko telefono hauetara hots egin: 637 43 82 45 (Mikel Fidalgo) edo 943 74 32 99 (Patxi Agea). Bestalde, xake taldekoak ostiralero izaten dira lokalean 18:00etatik 20:00etara eta edonor joan daiteke.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 3— Aloña Mendi 0 (Pref.)

Elgoibar 4 — Antoniano 1 (Jub.)

Esku pilota

Udaberri Saria

Zumaia 22 — Lagunak II 9 (Kad.)

Hernani 15 — Lagunak 22 (Kad.)

Aretxabaleta 9 — Lagunak 22 (Jub.)

Areto Futbola

Lojantzi 7 — Laskorain 1 (Jub.)

Kenci Elg. 3— Soloarte 4 (Nazional A)

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Barixakua, 7

22:10 Lanbroa — Bilkoin Legorreta (1. maila)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 8

18:30 Elgoibar—Almen Aretxabaleta (Neskak)

Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 7

21:00 Lagunak — Goierri (Kad.)

21:30 Lagunak — Eibar (Kad.)

22:00 Lagunak — Ilunpe (Juh.)

22:45 Lagunak I — Lagunak II (Nag.)

Cordon, Vilarchao, c.b. IDEKORAZIC)A

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, > behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70



URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

HARTFORD
ASEGURUA

11,4 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Bilboaldeko enpresak **soziologoa** behar du. **Erref. 97180/3**

Durangoaldeko enpresak **ajustadorea** behar du. **Erref. 96875/3**

Durangoaldeko enpresak **tornero eta frasadoreak** behar ditu. **Erref. 96872/3**

Mutrikuko aldi baterako enpresak **kontserberarako langilea** behar du. **Erref. 96572/3**

Debako aldi baterako enpresak **kontserberarako langilea** behar du. **Erref. 96564/3**

Debagoienako enpresak **teknikaria** behar du. **Erref. 95694/4**

Debabarreneko enpresak **mekanikoak** behar ditu. **Erref. 96287/1**

Debabarreneko enpresak **komertzialak** behar ditu. **Erref. 95954/1**

Debabarreneko enpresak **ingeniari informatikoa** behar du. **Erref. 97114/6**

Eibarko enpresak **PRL teknikaria** behar du. **Erref. 97200/3**

Eibarko enpresak **promotorea** behar du. **Erref. 96939/3**

Debabarreneko aldi baterako enpresak **informatika teknikaria** behar du. **Erref. 97548/1**

Hautagai moduan sartzea eskatu - nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora RamOn) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

• Neska astelheenetik ostiralera umeak edo helduak zaintzeko prest Mendaron. **nr 635 71 68 31 (Eli)**

Emakumea etxeko lanak egin, umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. **zr 943 74 29 54 (M' Jesus)**

• Emakumea etxeko lanak egin edo gaixoak zaintzeko prest. **nr 943 03 03 21 (Mertxe)**

• Emakumea umeak zaintzeko prest. Klinika auxiliar esperientziaduna. **nr 943 74 30 04 (Elena. 20:00etatik aurrera)**

• Mutila buzoneo lanak egiteko prest. **zr 943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)**

• Mutila garbiketa lanak egiteko prest. **lr 943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)**

*Tituludun neska, nagusiak orduka zaintzeko prest. **zr 686 07 85 96**

• Esperientziadun neska urritasunak dituzten haurak zaintzeko prest. **s 686 07 85 96**

*Neska umeak edo nagusiak zaindu, zein etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez. **ta 660 19 27 82**

♦ Iturginak bere burua eskaintzen du Elgoibar, Eibar edo inguruetan lan egiteko. Ahal bada kontratuarekin. Gidabaimena eta 8 urteko esperientzia. **tr 645 70 97 89/615 72 54 19**

♦ Neska arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **cr 629 98 81 74**

ESKAINZA

• Umeak zaintzeko pertsona behar da. **s 676 15 46 00**

♦ Etxeko lanak egiteko emakumea behar da, ahal bada, euskalduna. **1r 656 78 98 82**

• 50 eta 60 urte bitarteko emakumea behar da, eguneko ordu batzuetan adineko emakumea zaintzeko. **nr 943 74 40 62/680 31 90 02**

Kamareroa behar da. **az 943 74 42 65/943 74 01 93**

Etxebizitzak

Pisua alokatuko nuke Elgoibarren. **a- 650 94 11 73**

• Pisua alokatuko nuke Deban. **615 70 91 77 "astegunetan 18:00etatik aurrera deitu. Asteburuan egun osoan)**

• Pisua erosiko nuke Eibar eta Deba artean. 30 milioitik beherakoa. **nr 615 70 91 77 "astegunetan 18:00etatik aurrera deitu. Asteburuan egun osoan)**

• Etxea alokatuko nuke herriko edozein kaletan. **s 615 78 92 44**

Bestelakoak

♦ Flauta eta funda galdu nituen Plaza Txikito jolaslekuan otsailaren 25ean. Lanazkoa, urdin iluna. **943 74 12 47**

♦ Urrezko eta pedrerriadun belarritakoa aurkitu nuen urtarilean anbulatorioetik Madalara bidean. **tr 943 74 0578**
Ikastolako forro polarra galdu duenak, pasa dadila Servicasa ferreteriatik. **Santa Ana, 28.**

• Otsailaren 19an IMHko aldapan larrazko agenda topatu zuenari, estimatuko nioke barruko paperak behintzat Udaltzangoan utziko balitu.

Garajeak

Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan, sarrera onarekin. **tr 660 79 53 01**

* Garaje marraduna alokairuan, Pedro Muguruza 8an. **a. 639 97 19 77**

• Garajea alokairuan, Pedro Muguruza 6an. **13. 677 85 41 58**

• Marradun bi garaje salgai Karakol inguruan. **s. 943 74 07 33 (Rosa. 18:00 aurretik deitu)**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

• 4,5 kelibreko Norica Crono karabina salgai. Egoera oso onean.

• **943 74 27 27**

• Ford Scorpio 2500 turbo diesel salgai. **zr 649 97 10 53**

• Kotxea salgai. Rover 216, GSI. Merkea. **s 635 72 30 26**

• Fiat Tempra salgai. SS-AN. Egoera oso onean eta oso merke. **z. 696 49 43 78 (Lan egunetan 21:00etatik 22:00etara, jai egunetan edozein ordutan).**

• Opel Corsa salgai. Egoera onean. **17 625 70 80 42**

♦ Renault Clio 16v. salgai. Grisa. BI-BN **tr 606 60 87 41**

• Urkotronik markako goxoki makina salgai. Urte eta erdi, tenperatura bi-koitza. Merkea. **s 655 71 29 59**

Bi CD erreproduktore salgai. **943 74 26 21**

Partikularrak

♦ Enpresaritza ikasleak klase partikularrak emango lituzke. **669 68 77 05**

• Frantsez klaseak ematen dira. Maila guztiak, talde txikiak. **s 943 74 42 73**

*Unibertsitate Lizentziatuak 2. DBH arte klaseak ematen ditu. Euskaraz eta erdaraz. Ingelesa ere. Klase indibidualak. **tr 943 74 09 57/687 69 59 20 (Eli)**

• Hezkuntza Bereziko Magisteritza ikasi dut eta 3.ESO arte partikularrak ematen ditu. Interesatuta egonez gero deitu: **13. 652 71 59 11**

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
 Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
 TeL 943 741 461

Ordutegia:
 Astelehen-ostiral: 17:00-20:00
 Larunbata: 10:00-14:00

Agurrak

• Zorionak **Eider** otsailaren 24an 8 urte bete zituelako. Ionon partez.

♦ Zorionak **Aitor Arriri**, atletismoko Euskadiko txapelketan oso postu onean sailkatu zelako. Lagun misteriosuen partez.



• Zorionak **Loreari**, martxoaren lehen urtebete egin zuelako. Gurasoen partez.



*Zorionak **Irati Ansolari**, martxoaren 9an 14 urte beteko dituelako. Ondo pasa eguna. DBH 2koen partez.




• Zorionak **Olatz Uriguena**, martxoaren 6an 14 urte bete zituelako. Ikastolako DBH 2koen partez.

*Zorionak **Jose Anjel Iriondori** zure urtebetetzean, amatxo eta Mireiaren partez.

*Zorionak **Jon Ander Cerro**, otsailaren 24an 14 urte bete zituelako. Ikastolako DBH 2koen partez.



*Zorionak **Ion Zubiriari**, martxoaren 11n 2 urte beteko dituelako. Aitxitxa, guraso eta osaba-izeben partez.



*Zorionak **Aner-i**, martxoaren 8an 6 urte beteko dituelako. Familiako eta bereziki, aitxitxa eta amamaren partez.



• Zorionak **Amaia**, koen eta batez ere, Miren eta Iratiren partez.



• Zorionak **Nora** zure 3. urtebetetzean. Familiako eta bereziki Paula, Oier eta Iñakiren partez.



• Zorionak **Aitor Marcos Fernandez**, otsailaren 24an 5 urte bete zituelako. Guraso eta familiako guztien partez.



• Zorionak **Mireiari** martxoaren 5ean, 12 urte bete zituelako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak **Iker Gonzalez**, joan zen otsailaren 28an lehen urtebetetzea izan zuelako. Amaia, Gorka, Andrea guraso eta familiako guztien partez.

BEKAK

Uda Erresuma Batuan

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, udan Erresuma Batuan ingelesez ikastaroak egiteko 2.750 laguntza eskaini ditu. Egonaldiak 4 astekoak izango dira uztaile eta abuztua artean. Laguntza hauek 20 urtetik beharagoentzat dira. Epea: apirilak 2.

Uda Frantzia

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, udan Frantziako ikastegi desberdinetan egonaldia eta frantseseko ikastaro bat egiteko 455 laguntza emateko deialdia egin du. Egonaldia 4 astekoa izango da uztaile eta abuztua artean. Laguntza hauek 20 urtetik beharagoentzat dira. Epea: apirilak 2.

Ikerketa bekak

Gomez P ardo **Fundazioak** energiarekin erlazioatutako gaietarako 3 ikerketa beka eskaini ditu. Hilean 720 euro emango dira. Unibertsitateko titulua, goi mailako ingeniari-tza edo ingeniari-tza teknikoak izatea eskatzen da. Epea: martxoak 21.

JARDUNALDIAK

Musika eta teknologia berriak

Altzaga Kultura Etxean, Donostian, musika eta teknologia berrien erakustaldia izango da martxoaren 8ra arte.

IKASTAROKAK

Web orrien diseinua

Donostiako CRAJ-en web orrien diseinuaren sakontze ikastaroa izango da, 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Epea: martxoak 12. Gaiak: geruzak, portaera CSS (estilo orriak) eta ariketak.

LBIAKETAK

Narrazio laburrak

UHUN-k (UNED) Narrazio Laburren IV. Lehiaketa antolatuta du. Gaia librekoa izango da. Lanak gaztekeraz idatzi behar dira. Saria 6.010 euro eta 901 euroko bi akzesit. Epea: martxoak 17.

LANA

7 udaltzain

Eibarko Udalean 7 udaltzain postu betetzeko oposizio lehiaketa libre bidez betetzeko deialdia. Lehen mailako lanbide heziketa titulua, eskola graduatua edo titulu baliokide bat eta euskarako 2. Hizkuntza eskakizuna eskatzen da. Epea: martxoak 15.

Zerga bilketako teknikaria

Azpeitiko Udalak, zerga bilketarako teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio lehiaketa deialdia egin du. Ingeniari Teknikoaren titulua, Arkitekto Teknikoaren titulua, unibertsitateko diplomatura, 3. Mailako LHko titulua edo baliokidea eta euskarako 3. Hizkuntza eskakizuna eskatzen da. Epea: martxoak 13.

7 BARIKAKUA

19:00 KRISTINA MATASEN

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Argazkiak, serigrafia, litografia, akuarela eta oleoa

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

Martxoaren 23ra arte

22:15 **ANTZERKIA**

Antzezlanak: "Se busca impotente para convivir"

Taldea: Glu Glu Produkzioak

Herriko Antzokuan

Antolatzailea: Kultura saila Haizea

E.T.rekin elkarlanean

9 DOMEKIA

12:30 **TXOTXONGILO**

ANTZEZLANA

"Itsasminez"

Taldea: Txotxongilo Taldea

Herriko Antzokian

10 ASTELEHENA

11:00 **"BOSKOITZ" TALDEAREN**

KONTZERTUA

Herriko Antzokian

L.H.ko ikasleentzat

Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika

Eskolan

19:30 **HITZALDIA**

Gaia: Globalizazioa

Hizlaria: Arturo Garcia

Antolatzailea: Parrokiako Misio Taldea

11 MARTITZENA

18:30 **BILERAK**

Gaia: Elkarbizitzen ikasteko baloreak

Hizlaria: Hilario Garrudo

Pilar Ikastetxean

13 EGUENA

11:30 **EGUNKARIAREN ALDEKO**

LANUSTEA

12:30ak arte

Antolatzailea: Egunkariaren aldeko Herri

Batzordea

20:00 **EGUNKARIAREN ALDEKO**

KONTZENTRAZIOA

Udaletxe parean

Antolatzailea

Egunkariaren aldeko Herri Batzordea

14 BARIKAKUA

22:00 **ZINE-FORUM-A**

"Tomates verdes fritos"

Kultur Etxean

IKASTAROAK

Ikastaroak eta postgradua IMHn

Datorren martxoaren 14an lan prebentziorako erdi mailako teknikarien postgradua hasiko da, beraz, interesa dutenek IMHko 943 74 82 70 telefonoan eman dezakete izena. Bestalde, martxoaren 8an, zapatuan, ingeniartzako probak prestatzeko matematiketako ikastaroa goizeko 9:00etan hasiko da. Azkenik, langabetuentzako ikastaro bat jarri dan martxan, "Txirbil arroketa bidezko mekanizazioarena", eta ikastaroa amaitzean, Etxeberriko JLFrench enpresak, ikasleen %60a kontratzeko konpromezna hartu du. Izena emateko epea martxoaren 14an bukatuko da. Interesatuak IMHko 943 74 82 70 telefonora dei dezakete.

Kiromasaia ikastaroa

Ikastaro berri bat hasiko da Aubixa baserrian martxoaren 8an, zapatuan. Kiromasaiaren inguruko ikastaroa izango da. Nerbioetarako oso ona omen da, zelulen azala berritzen baitu. Odolaren zirkulazioa ere hobetzen du, gaixoari nekearen sententzia kenduz eta aldi berean, kiroletarako zein lanerako gaitasuna gehitzen du. Hezurrentarako ere mesedegarria da, batez ere, puskatu eta igeltsua jartzen denean, berriz onera etortzeko lagungarriak dira kiromasaia teknikak. Azal zaharra erori eta berriari bide ematen laguntzen du eta baita jakineko guneetan biltzen den koipea desegin ere. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko: 946 03 07 26 edo 667 256 808 telefonotara dei egin.

ZINE
kluba



"El Traje"

Zuzendaria: Alberto Rodriguez.

Antzezleak: Eugenio Iosé Roca, Manuel Modm, Vanesa Cabeza.

Afrikan etorkina da Patricio eta nola edo ahala moldatzen da bizimodua ateratzen Sevilla moduko hiri handi batean. Zorteak irriparr egingo dio behingoz, eta auto bati gurpila aldatzen laguntzeagatik jabeak traje dotorea oparituko dio. Kaleko iruzurgile xume baten laguntzaz lehen debekatuak zituen hainbat gauza egiteko aukera eskainiko dio janzkera berriak. Traje berriak ate asko irekitzen ditu norberak antzerki eta itxura pixka bat eginez gero.

Labeko esmalte ikastaroa

Egur Arte tailerrak labeko esmalte ikastaroa antolatu du. Martxoaren 10etik 28ra arte izango da 30 orduko ikastaroa, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Nahi duenak Egur Arte tailerlean eman dezake izena, Ubitarte Plaza z/g. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

BILERAK**Elkarbizitzen ikasteko baloreak**

Aurreko urteetan bezala, aurrean ere, Pilar Ikastetxeak interes handiko bilerak antolatu ditu Udalaren laguntzaz. Lehen hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzenduta daude eta Hilario Garrudo izango da hizlaria. Martxoaren 11n, martitzenean, "Elkarbizitzen ikasteko baloreak" izango da bilerako gai nagusia eta martxoaren 18an, berriz, "Aisialdiaren kultura".

Bilerak 18:30etatik 20:30etara izango dira Pilar Ikastetxean.

OSPAKIZUNAK**Emakume Langileen Eguna**

Bihar, martxoak 8, Emakume Langileen Eguna denez, Haizea Emakume Taldeak hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Udaletxea eta Emakunderen laguntzaz. Gaur, martxoak 7, Cristina Matas artistaren erakusketa inauguratuko da Kultur Etxean. Xiberoa garatzen egitasmoaren barruan kokatzen da erakusketa. Bertan, argazkiak, margoak, litografia, akuarelak eta serigrafia biltzen ditu erakusketak eta martxoaren 23ra arte izango da ikusgai. Martxoaren 9an, domekan, berriz, herri bazkaria izango da Herri Gain jatetxean. Pitxintxu dendan eman daiteke izena.

IRTEERAK**Sagardotegira irteera Gaztetxetik**

Gazte Asanbladak sagardotegira irteera antolatu du. Martxoaren 14an, barixakuan, aterako da autobusa Elgoibartik Hernani aldera, Otsue-enea sagardotegira, hain zuzen ere. Tikitak, Lanbroa, Iratxo eta Txuri-Beltz tabernetan daude salgai. Prezioa 30 eurokoa da langileentzat eta 24 eurokoa langabetu eta ikasleentzat.

IKUSKIZUNAK**"Itsasminez" Txotxongilo Taldea**

Txotxongilo taldeak "Itsasminez" txotxongilo ikuskizuna eskainiko du martxoaren 9an, domekan, 12:30ean Herriko Antzokian. 1971. urtean sortu zen talde hau haur eta familientzako Txotxongiloen Antzerkia egiteko, Enkarni Genua eta Manolo Gomez bikotearen ekimenez. Txotxongilo mota ezberdinetan oinarrituz, diapositiba, argi beltza eta bestelako zenbait ustekaberen bitartez istorio samur eta ezitia osatu dute. Argi da ipuineko protagonista. Itsasoa arrisku bizian dagoela-eta, itsas ondora bidaiatzea erabakiko du. Han lagun asko ezagutuko ditu eta ilargira bidaiatzera bultzatuko dute, ilargiaren esku dagoelako arazoaren giltza.

zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Atrapame si puedes"

8, zapatua: 19:30-22:15

9, domekia: 19:30-22:15

10, astelehena: 22:15

"El traje" (Z.K.)

13, eguena: 22:15

"Pianojolea" (Korrika kulturala)

14, barixakua: 22:15

EIBAR**Unzaga****"Daredevir"**

7, barixakua: 19:30-22:15

8, zapatua: 17:00-19:30-22:30

9, domekia: 17:00-19:30-22:30

10, astelehena: 19:30-22:15

11, martitzena: 19:30-22:15

12, eguaztena: 19:30-22:15

"Mortadelo y Filemon"

7, barixakua: 19:30-22:15

8, zapatua: 17:00-19:30-22:15

9, domekia: 17:00-19:30-22:15

10, astelehena: 19:30-22:15

11, martitzena: 19:30

12, eguaztena: 19:30

IKUSKIZUNAK eta IRTEERAK: Herriko Antzokian
 ELGOIBAR, Herriko Antzokian

**"Atrapame si puedes"**

Zuzendaria: Steven Spielberg.

Antzezleak: Leonardo DiCaprio, Tom Hanks, Christopher Walken.

Errealitatean oinarritutako istorio honetan Frank Abangale Jr (Leonardo DiCaprio) munduan inoiz izan den iruzurgile handiena da. 18 urte bete aurretik mediku, abokatu edo hegazkin pilotu komertzial gisa lan egin zuen inor bere benetako izaeraz ohartu gabe. Hau gutxi balitz, Estatu Batuetako historian banku lapurrik arrakastatsuen izatera iritsi zen. Carl Hanratty (Tom Hanks) FBIko agenteak Frank atxilotzeko zeregina hartu zuen bere gain, eta bere bizitzako obsesioa bihurtu zen.

N




A

ste honetako erretratu zaharra Pepita Astigarragak laga digu. 1960-61 urte ingurukoa da argazkia, eta "Corpus" egunean aterata dago. Garai hartan ohitura zen "Corpus" egunean prozesioa egitea, eta haur guztiak monagilo jantzita ateratzen ziren. Argazki hau, prozesio amaieran ateratakoa da, hau da, San Bartolome elizara iristen ari zirela. Sekulako giro polita izaten zen, eta jendeak Ioreak eta mieloak (landare mota bat) botatzen zizkien beren aurretik pasatzen zirenean. Gogora dezagun zein diren erretratuan agertzen diren mutiko hauek, ezkerretik hasita: Jesus Mari Ruiz de Gauna, Manu Konde, Josu Konde, Jose Anjel Bereziartua (atzekoa). Aurrean ezkerretik hasita Luis Etxeberria (bizkarra ematen dagoena) eta Anjel Atristain.




ESKERTZA

2003ko otsailaren 20an, 68 urte zituela hil zen
ARTURO SUEIRO LOPEZen sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko otsailaren 22an, 49 urte zituela hil zen
JOSE MARI OÑEDERRA ARGINBERRIren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Juin auzunea. 1 -A
20720 Azkoitia (Gip uzkoaj
Ifnoa, 943 85 17 55
Fax: 943 85 ;78 02

CALITATE eta PREZIO
>aregabeekin, aukera ezin hobea!

Itte
3holtza parketa
_eiho
Armairu enpotratu
Sukadeko altzaria
Elektragailuak



**KALITATEAK, DISEINUAK ETA PROFESIONALITASUNA IK
GURr DEFINITZEN DUTE**

**ESKAITZA
BEREZIAK**



ATEAK
Blindatuak
Barrukoak

LEIHOAK
PVC
Aluminioa
Zura

**ARMAIRU
EN POTRATUAK**
Neurrira

BILA ZABILTZAN (Ofir,"014.1) AURKITUKO DUZU GUREAN

ZEZEN-BIDE AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era

Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 455 « 20600 EIBAR



GREIBIOEN GIDA

AROTZEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
Tr 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
u 943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia 3. zenb.
"a 943 74 34 90

LURRA

Santa Klara, 28 Behea
943 74 40 50

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
zr 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
13 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
"Er 943 74 03 96

ERREFORMAK eta PROIEKTIMK

ETXEKIT

Antonio Arrillaga, z/g
u 943 74 43 47

ITURGINTIA

ANGEL

Santa Ana, 5
u 943 74 17 61
u 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
1r 943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
u 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
rr 943 75 50 62
"Zr 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
"Er 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
1r 943 74 07 89
tr 608 14 30 40

PINTURAK

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
u 943 74 15 52
u 606 43 11 19-20

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
15r 943 74 04 40
u 607 74 04 40

PROIEKTUGILEAK

JESUS M.² GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.
u 670 41 20 73

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
u 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
u 943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
1r 943 74 09 02
u 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
21 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
z" 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
tr 943 74 29 87
zr 679 19 77 47

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
u 943 74 30 94